



## “Trapu zikinak aztergai” mintegirako gonbidapena

Herri mugimenduetan aritzen zaren emakume\* feminista hori:

Askotariko eragile sozial eta feministetan jarduten dugun hainbat kide gara, eta mintegi bat prestatu dugu herri eragileetan gertatzen diren eraso sexisten inguruan, feminista gisa, prozesu horietan guztietan nola ari garen jarduten aztertzeko eta partekatzeko; ditugun kezka eta galderak elkarbanatzeko, eta aurrera begirako erronkak zeintzuk diren identifikatzeko.

Urte mordoxka daramatzagu gure auzo elkartean, gaztetxean, antolakundeetan ... gertatzen diren eraso sexistak kudeatzen, batzuetan protokoloak baditugu, besteetan ez, baina denetan izan ohi ditugu zalantzak eta kezka. Hortaz, lan saio honetan parte hartzaile guztien bizipenak, sententziak, iritziak, esperientziak ... jasotzeaz gain, batetik, gaiari lotuta eginiko hainbat prozesu kolektiboetan (Bilgune Feminista, Ezker Abertzalea, Joxemi Zumalabe, Errekaleor), landutako eduki nagusiak ezagutzeko aukera izango dugu (nola ari gara, zein dira zailtasun eta kezka nagusiak, aurrera begirako galderak eta bide posibleak). Bestetik, elkarrekin gaiari lotuta ditugun iritziak, gogoetak, kezka, galderak, proposamenak ... lantzeko aukera izango dugu.

Hori dela eta, “Trapu zikinak aztergai” mintegian parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu, irailaren 22an, Iraultza Txikien Akanpada ekimenaren baitan, goizeko 10.00etatik 13.00etara Zubietako eskolak (Gipuzkoa) .... egingo dugun saioan. Konfiantzazko espazioa izatea nahi dugu, gai erraza ez denez, behintzat gure presentziak eta sinergiek aringarri egin dezatela nahi dugu. Horregatik, artean, emakumeentzako\* izango da soilik.

Ziur gaude zure, zuen esperientzia kolektiboetan izango zenuela edo jardungo zenuela horrelako prozesuren batean, edo eta zuen kolektiboan landuko zenuela gaia. Askotan bakoitzak, eta batez ere feministok, bakarrik egin behar izan dugu ibilbidea gure antolakundeetan. Beraz, elkarrekin gai lantzeko eta elkarbanatzeko deia da hau. Mintegi honen ondoren zer? Galdera denon artean erantzungo dugu, baina behintzat elkarrekin biltzeko saiakera egin nahiko genuke.

Animatu zaituzte, edozein zalantza izanez gero eta zure parte hartzea konfirmatzeko, idatzi edo deitu gonbidapen hau igorri dizun kideari.

Atsegin handiz, agur.